

EH Bildu talde politikoa Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA ERROLDA SOZIALA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2020ko ekainaren 15ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 20ean Ongi Etorri Errefuxiatuak Gipuzkoa (OEE) kolektiboak idatzi bat helarazi zien Eneko Goia alkateari eta gainerako udal taldeei, COVID19aren pandemiak okertutako zaugarritasun egoeren aurrean neurriak hartzeko eskaera eginez.

Elkarteak aurkeztutako testuan aipatzen denez, pobreziaren atalasea gainditzeko duten pertsonen kopurua handitu egin da, eta gero eta langile gehiagok hilabete bukaerara heltzeko zailtasunak dituzte, batez ere, zerbitzu eta zaintzetan dabilzatenak (etxeko langileak, etxez etxeko zaintza, egoitzetako langileak, garbiketakoak, jantokietakoak...). Eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen artean, hauek dira ondorio larrienak jasaten dituztenak: migratzaileak, sexu-langileak, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonak eta etxerik gabekoak.

OEE elkarteak genero bereizkeriak eragindako desberdintasunen aurrean hartu beharreko neurrietaz ere hitz egiten du. Izan ere, emakumezkoen prekarietatea areagotu da. Gauzak horrela, COVID-19ak sortutako ezusteko egoera zail honen aurrean, ondorengo neurriak eskatzen dizkiote udalari:

- alde batetik, premiazko neurriak:

1. Egoitza-baliabideak kalean dauden pertsonentzat, konfinamendua amaitzen denean ere.
2. Dagozkien gizarte-zerbitzuek emandako zirkulaziorako dokumentu bat izapidetzea, polizia-errekerimenduei erantzuteko baliozkoa izango dena, hainbat arrazoiengatik harrera ukatu zaien pertsonentzat.
3. Donostiako Udaltzaingoak egindako ustezko gehiegikeriak eta indarkeriak, bereziki arrazistak, ikertzea.

- bestetik, hurrengo etapan hartu beharreko neurriak:

1. Etxebizitza eskubidea bermatzea: lanik gabe geratu diren pertsonak babestea, etxegabetu direnak, alokairuak ordaintzeko arazoak dituztenak, etxebizitzarik aurkitzen ez dutenak, etab.

EH Bildu talde politikoa **Grupo político EH Bildu**

lJentea, 1 - Tel. 943481027 – www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

2. Aldi baterako harrera tokietan dauden pertsonen babesa, arreta berezia eskainiz Aldundiaren tutoretzapean zeuden gazteei.
3. Pertsona guztientzat erroldatzea bermatu behar da.
4. Oinarrizko Errenta Unibertsala ezartzeko koordinazioa beste erakundeekin batera.
5. Migratzaileen erregularizazio administratiboa: krisi garai honetan sortu diren kanpainekin bat egiten dugu. Donostiako Udalaren eskumena ez den arren, Udalak ahalmena du irregulartasun-egoeraren ondorioak arintzeko politikak diseinatzeko zein harrera-programak diseinatzeko eta beharrezko baliabideak eta baldintzak eskaintzeko, trantsituan dauden pertsonen eta Europako mugetan blokeatuta daudenek harrera orekatua eta kalitatezkoa izan dezaten, bere burua harrera hiria izendatu duen hiri honetara heltzean.

Ekainean OEE elkarteako kideek adierazi ziguten ez zutela erantzunik jaso gobernuaren aldetik eta, hortaz, delegatua interpelatu genuen. Batzordeetan delegatuak adierazi zigun lan-zama dela-eta erantzutea ahaztu zitzaizela, baina elkartearen eskaeretan Udalaren eskumena ez ziren neurriak zeudela; haien artean, pertsona migratzaileen erregularizazioarekin erlazionatutakoak.

Uztailean pertsona migrante eta errefuxiatuekin lan egiten duten kolektiboek (Sos Arrazakeria, CEAR, etab.) erregularizazioaren aldeko eskaerak egiten jarraitu dute eta mobilizazio baterako deia egin dute Euskal Herriko hiriburuetan uztailearen 19an.

Izan ere, atzerritartasun legea Espainiako gobernuaren eskumena izanik, udalek aukerak dituzte pertsona migranteen eskubideak bermatzeko errolda sozialaren bidez. Adibide bezala, Bilboko Udalak ekainaren 22an onartu du, EAJ, EH Bildu eta PSE-EEren arteko akordio baten bidez, Bilbon bizi diren pertsonak erroldatzea, 7/1985 legea betez, larrialdian udal dependentzietan konfinatuta egon diren pertsona guztiei erroldatzea erraztea eta kale egoeran dauden pertsonak erroldatzen jarraitzea.

Horrelako inizatibak egoera zaurgarrienean dauden pertsonen baliabide sozial eta eskubide zibiletarako ateak irekitzeko pausoak dira eta uste dugu Donostiak ere martxan jarri beharko lituzkeen neurriak direla, OEE kolektiboak martxoan aurkeztutako dokumentuan jasotzen den bezala.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, osasun alarma egoeran udal dependentzietan konfinatuta egon diren pertsona guztiei erroldatzea erraztea, Donostian bizitzen jarraitzen duten bitartean.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostian bizi diren eta bizilekurik ez daukaten pertsonak erroldatzen jarraitzea, baldin eta gizarte-zerbitzuek edo hiriko hirugarren sektoreko erakundeek ezagutzen badituzte eta alegiazko bizileku bat esleitzeko ezarritako baldintzen inguruan dauden lege-aurreikuspenak aplikatu ahal bazaizkie.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lan-ildo bat abiatu dezala, hirian Aldundiko baliabideetan egon diren nerabeak 18 urte betetzen dituztenean, egun batetik bestera, erroldarik gabe geratu ez daitezzen.

Donostian, 2020ko uztailaren 17an

Olaia Duarte López

EH bildu udal taldeko zinegotzia